





ibiri  
iri  
iri




















Pentsatu eta egiteko, bizitzeko  
eta lan egiteko, beste  
pertsonekin eta bizi zaren ingurunearekin

harremanetan jartzeko modu  
ekologikoak eta osasungarriagoak hartzea

gustatuko litzaizuke?

Ohiturak aldatu eta portatera  
goak eta birsortzailegoak zirkularrak

eta birsortzailegoak hartu

nahi dituzun, bai maila indibidualean,  
bai kolektiboan?

Jabetzen al zara eskuragartri

eraginkorragoan eta jasagarriagoan erabiltzearen eta ingurumenean

ondorio negatiboak murriztearen garrantzia? gizartean gure

Egunerokozan benetak eraldaketak eta eraldaketak zailzen dituzten otopoak gaitzen lagunduko duten printzipio inspiratzaileak praktikan jarri nahi dituzte?

Interesatzen al zaizu bizitzaren bideak, erabakiak, arretak eta gozagarriagoetarako trantsizioa erraztuko duten proiektuak eta zerbitzuak, prozesuak eta esperientziak diseinatzea?

Uste duzu garapenaren, hazkundearen

eta aurrerapenaren kontu hori

guztia eskuetatik joan zaigula eta naturarekin berriro konektatu beharko

genukela?

Erantzuna baiezkoa izan arren,  
aldaketari uko egiten badiozu,  
egunerokotasunean inertzia eta  
ohiturei amain ematen badiezu  
edo parte zaren erakundeetan  
eta taldeetan urratsak ematea  
kosta egiten bada, gogoeta  
egin nahi baduzu eta ohitura

eta portaera zehatzak aldatzen  
laguntzeko zure buruari  
galdera eraldatzaileak egin nahi  
badizkiozu, zure erakunde  
etorkizun zirkular eta birsortzaile  
baten parte aktibo izan nahi  
baduzue, orduan...

***biribili ZURETZAT DA!***

# AURKIBIDEA

- 1. Zer da** *pág 2*
- 2. Oinarriak** *pág 8*
- 3. Printzipioak** *pág 20*
- 4. Baliabideak** *pág 48*
- 5. Nortzuk** *pág 56*

# 1. Zer da



**BIRIBILIZATUKO GARA?**

**biribili** uskarazko hitz-joko baten emaitza da, zirkulartasunerantz joatera gonbidatzen gaituena (biribil + ibili). Trantsizio ekosozialerako autodiagnostikorako eta autoebaluaziorako tresna bat, permakulturaren printzipioetan oinarritzen dena.

**biribili** bereziki pertsonentzat, erakunde txikientzat eta komunitateentzat pentsatuta dago, honako hauetarako:

1. Hausnarketa indibiduala eta kolektiboa bultzatzeko, nola bizi garen eta nola lan egiten dugun eta nola egin nahiko genukeen hobeto jabetzeko.
2. Jokabide-aldaketak sartzen joateko eta eredu mental, ohitura eta errutina berriak hartzen joateko, zirkularragoak, birsortzaileagoak, ekologikoagoak eta osasungarriagoak.

## 1. Zer da



**biribili** egoera, behar, erritmo edo lehenetasun desberdinetara egokitu daiteke. Tresna baliagarria da, bai egoera eta proiektu zehatzetarako, bai hausnarketa estrategikoko edo antolamendu-aldaketako prozesuetarako. Desioa eta energia alternatiba positiboak, eskuragarriak eta birsortzaileak irudikatzen eta aplikatzen bideratzen laguntzen du.

Pisua kentzen die argudio apokaliptiko, erruduntzaile eta zigortzaileei. Aurre egin dakiokenean jartzen du arreta, erroka handirik ezarri gabe. Egunerokoa lursail txikiak egin eta irabaztetik. Umil-umil. Urratsez urrats. Premiazkoan eta garrantzitsuan.

## 1. Zer da



**biribili ez da proposamen berritzailea, eta ez du gurpila berrasmatu nahi. Aurretik zeuden teoriak eta metodologiak jasotzen ditu, eta berriz marraztuta, sintetizatuta eta galdera moduan itzultzen dizkigu.**



**biribili erritmoa jaisteko eta urrats bakoitzaz gozatzeko deia da, iruditeria eta subjektibotasun berriak lantzeko deia, eko eta biorako trantsizioa eta horien ondorio eraldatzaile osasungarriak positiboki ikusten lagunduko dutenak.**

## 2. Oinarriak



**biribilik** gonbitea egiten digu produktibismoarekin eta kontsumismoarekin lotutako bizimoduetatik, pentsamendu lineal eta azeleratutik, erabili eta botatzetik edo zaharkitze programatutik, portaera zirkularragoetara, ugalkorragoetara, pausatuagoetara, eta bukleetan eta atzeraelikadura-fluxuetan oinarritutakoetara igarotzera.

**biribilik**, zirkulartasuna, eskura dauden baliabideen eta harremanen zaintzatik, erabilera kontzientetik eta aktibazio arduratsutik lantzen du, bizi-zikloak ahalik eta gehien zabaltzeko. Eta, gainera, birsortze-klabeetan egiten du, parte hartzen dugun ekosistemen osasuna eta bizitasuna leheneratzeko eta hobetzeko baldintza egokiak sortzea bilatuz.

## 2. Oinarriak

Gehiago jakin nahi baduzu, hona hemen lau erreferentzia haritik tira egiteko:

1. Konposta izateko eta izateaz gozatzeko gonbidapena “Seguir con el problema. Generar parentesco en el Chthuluceno” liburuarekin. Donna J. Haraway-ren lana, Consonnik editatutakoa, filosofia poetiko praktiko hutsa da zirkulartasun tentakularrerako.
2. Ellen MacArthur Foundation-en webgunea. Ekonomia zirkularra sustatzeko erreferentziatzko nazioarteko erakundea da.
3. “Diseñando Culturas Regenerativas”, Daniel Christian Wahlen liburua da, EcoHabitar argitaletxeak argitaratua, eta diseinu birsortzaileko printzipio, eredu eta proposamenen katalogo oso bat eskaintzen du.
4. NBEk 2021-2030 aldia Berrezarpenaren Hamarkada” izendatu du.


<https://www.consonni.org/es/publicaciones/seguir-con-el-problema-generar-parentesco-en-el-chthuluceno>

[www.ellenmacarthurfoundation.org](http://www.ellenmacarthurfoundation.org)

<https://ecohabitar.org/producto/disenando-culturas-regenerativas/>

[www.decadeonrestoration.org/es](http://www.decadeonrestoration.org/es)

## 2. Oinarriak



NATURATIK IKASI

**biribilik** zirkulartasuna permakulturatik bilatzen du. Elkarren osagarri diren 12 printzipiorekin lan egitea proposatzen du elkarrekin lotutako hiru etikaren bidez:

**1) Lurra zaintzea.**

**2) pertsonak zaintzea.**

**3) Energia, baliabide eta soberakinen bidezko birbanaketa.**

Permakultura nekazaritzako elikagaien esparruan sortu zen, baina beste askori aplikatzen da, hala nola osasunari, hezkuntzari, finantzei, etxebizitzari, energiari, gizarte- eta kultura-prozesuei... Gainera, sistema eskalagarria da, eta berdin lagun diezaguke arlo pertsonalean zein parte garen erakunde eta komunitateetan edo auzo, udalerrri edo eskualde mailan.

## 2. Oinarriak

Gehiago jakin nahi baduzu,  
guretzat funtsezko bi  
erreferentzia hauek dira:


1. "Permakulturaren printzipioak" David Holmgrenen lana laburbiltzen duen webgune erraza, permakultura zer den, haren etika eta printzipioak eta jardun-eremuak ulertzen laguntzeko.
2. "La gente y la permacultura", Looby Macnamararen liburua, Kaicronek argitaratua, diseinu pertsonal, kolektibo eta planetarioari aplikatutako permakulturari buruzkoa.

[www.permacultureprinciples.com/es](http://www.permacultureprinciples.com/es)

<https://loobymacnamara.com>



## 2. Oinarriak



**BIZITZA ERDIGUNEAN JARTZEA**

**biribilik** bat egiten du bizitza merezi duen bizitza baten bilaketa feministarekin, enpleguaren eta lanaren banaketa ulertzeko ditugun moduetan, 8-8-8 logika zaharkituz haraindiko bizi-denboraren antolaketan edo kapital-banaketan eta balioa ematen diogun horretan eraginez.

Horregatik, **biribili** ColaBoraBorak garatutako beste tresna baten osagarri ezin hobea da: “IraunBIZIbideragarritasuna – Bizitza erdigunean jarriko duen ekintzailtza baterako trikimailu eta konponbideen Gida”. Hiru oinarriren inguruko ariketak eta ikaskuntzak biltzen ditu: Bizi / Zaindu / Kobratu.

Gida praktikoa da, Rosa Fernándezek zuzendutako kodiseinu-prozesu baten emaitza, La Quinta Olaren kolaborazioarekin.

<https://sostevidabilidad.colaborabora.org/eu/iraunbizibideragarritasuna/>

**Oinarrien eta printzipioen artean, ideietatik ekintzetara igaroz.**

# 3. Printzipioak



## Naturarekin berriro konektatzeko gonbidapena

**biribili** permakulturan oinarritzen da, naturan aurkitzen ditugun patroietatik eta harremanetatik ikasten duen diseinu-sistema integral batean. Elkarren osagarri diren 12 printzipioak praktikatzea proposatzen du, eta elkarri lotutako hiru etika nagusiren inguruan oinarritzen da:

- 1) Lurraren zaintza.
- 2) Pertsonen zaintza.
- 3) Energiaren, baliabideen eta soberakinen bidezko birbanaketa.

### 3. Printzipioak




*Konponbide motelak eta txikiak erabili*

Gauza gutxiago, zainduagoak. Kudeatu eta mantendu daitekeen zerbaitetik hasi. Espektatibak, denborak eta eskalak neurtu. Erritmoak ulertu, bizkorregi ibili gabe, gehiegi hartu nahi izan gabe. Intentsitatea jaitsi (une jakin batzuetan izan ezik). Xehetasunetan arreta jarri.

***Zein da gutxieneko proiektu bideragarria? Zer kendu dezakegu helburuari eragin gabe? Zer xehetasun dira erabakigarriak? Zein dira puntu kritikoak azkarregi bagoaz?***

### 3. Printzipioak




*Behatu eta elkarri eragin*

Arreta jarri. Jakin-mina landu. Nork bere buruari eta gure ingurukoei entzun. Zentzumen guztiak erabili. Lehen eskuko esperientziak izan eta ezer ziurtzat ez jo. Porotsuak izan. Ingurunearekin mimetizatu.

***Nola egingo duzue behaketa?  
Zer zantzu jaso dituzue  
azken miaketan? Zer  
galdera egingo dizkiezue  
beste eragile batzuei?  
Zer pentsatzen duzue,  
zer sentitzen duzue, zer  
sumatzen duzue?***

### 3. Printzipioak



Eredu*i* erreparatu eta xehetasunak zaindu

Sistema ulertu eta bereizgarria dena aintzat hartu. Portaera-, pentsamendu- eta komunikazio-jarraibideak identifikatu. Orokorraren eta partikularraren artean joan-etorriko bidaiak egin. Planifikatu azaleratzen ari denari arreta emateari utzi gabe. Egokitu eta testuinguruan kokatu.

***Zeintzuk dira egiturazko elementu gakoak? Ba al da errepikatzen den eredurik? Zer xehetasun zaindu nahi dituzue ondoen? Testuinguruko zein faktorek eragin diezazuekete gehien? Zereginen zerrenda zehatza egin duzue?***

### 3. Printzipioak



*Aniztasuna maximizatu*

Desberdintasunak eta adimen anitzak baloratu. Integratu, bereizi beharrea (EDO-tik ETA-ra). Inklusiboak eta abegikorrak izan. Tipologiak batu eta alternatibak aztertu. Apustuak dibertsifikatu erresilientzia handitzeko eta kalteberatasuna minimizatzen.

***Zer dibertsitate mota sartzea da lehentasunezkoa?  
Zertan egingo luke mesede aniztasuna handitzeak?  
Nola erakarri falta dena?  
Dibertsitatea areagotzearen ondoriozko zer gatazkari erantzun beharko litzaioke?***

### 3. Printzipioak




*Ertzak eta marginala aintzat hartu*

Mugak ohiko konbentzio, arau eta errutinetatik haratago zabaldu. Muga lausoak, dinamikoak eta malguak igaro. Elkartzeko, trukatzeko, elkarrekintzarako eta desadostasunetarako lekuak bultzatu. TRANS–ean bizi.

***Zer ari da gertatzen ertz eta espazio informaletan?  
Zein muga fisiko eta mental zeharkatzeko prest zaudete?  
Zer nahasketa eta tentsio izan daitezke generatiboak?***

### 3. Printzipioak




**Elementuak eta egiturak konektatu**

Elementu bakoitzak funtzio ugari betetzen ditu, eta funtzio bakoitzari hainbat elementuk eusten diote. Balioa handitu elementuak, profilak eta trebetasun osagarriak konbinatuz. Sare irekiak eta banatuak artikulatu. Rol eta inplikazio ezberdinak bultzatu.

***Zer elementu eta funtzionaltasun babestu eta indartu? Zein konexiok sor dezakete balio handiagoa? Zer ireki eta parteka daiteke? Nola parte har daiteke?***

### 3. Printzipioak



**Arazoa konponbidea da**

Sintomei erreparatu eta kausak eten. Mehatxuetan aukerak aurkitu eta ahuleziak indargune bihurtu. Kritikak onartu eta akatsetatik ikasi. Gure ekintzen ondorioez (batzuetan ikusezinak) gehiago jabetu. Irudimenaren erabilera intentsiboa egin.

***Non sortzen dira arazo eta gatazka nagusiak? Zeintzuk dira kausak? Zein akats errepikatzen dituzue gehien? Zein izan liteke irtenbiderik errazena? Eta disruptiboena?***

### 3. Printzipioak



Energia mobilizatu eta gorde

Eskura dauden energia motak identifikatu. Bioritmoak eta ziklo naturalak aprobeztatu. Oparotasun garaian bildu, eskasia-uneetan erabiltzeko. Pasioak, helburuak zehazteak eta egiten dugunarekin loturak energia positiboa sortzen dute.

**Zer energia-baliabide mota dituzue? Zuen bioritmoak ezagutzen dituzue eta planifikatzeko gida gisa balio dizuete? Zer da zuentzat energetizantea? Zergatik blokeatzen da zuen energia?**

### 3. Printzipioak




*Autoerregulazioa eta atzeraelikadura*

Ahaleginik txikiena eta etekinik handiena. Etengabeko ikaskuntza eta hobekuntza. Helburu partzialak eta mugarri zehatz lorgarriak ezarri. Eman eta jaso, elkarrekotasuna bultzatu. Erraztu (oztopoak murriztu). Lotura onuragarriak eta iraunkorrak sortu.

***Zer dabil ondo? Zer hobetu dezakezue edo zer egiteari utzi? Zeintzuk dira zuen hurrengo helburu zehatzak? Zein eragile dira funtsezkoak horiek lortzeko? Nola hobetu ditzakezue dituzuen harremanak?***

### 3. Printzipioak



*Onurak eskuratu*

Era desberdinetako pizgarri eta sari erabilgarriak bilatu. Prozesuaz gozatu, emaitzak biltzeaz bezainbeste. Epe laburrari eta epe luzeari modu orekatuan erantzun. Norberaren interesak zaindu, taldearenak bezala.

***Zer emaitza espero dituzue epe labur eta luzean? Ba al dakizue horiek nola jaso eta kapitalizatu? Nola orekatzen dira zuen interesak gainerako agenteen interesekin? Soberakinak kudeatzen dituzue?***

### 3. Printzipioak




*Aldaketetara ireki*

Aldaketa zerbait positiboa eta saihestezina dela ulertu. Mailaz mailako trantsizioak bultzatu eta horiek kudeatzen ikasi. Zer den eta zer izan litekeen pentsatu, memoriarekin baina nostalgiarik gabe. Nahi diren aldaketen ibilbidea marraztu.

***Zer aldatu behar duzue? Zer lehen urrats eman? Zer gal eta irabaz dezakezue? Zertan eta nola egiten diozue kontra aldaketari? Zer ikasi zenuten zuen azken eraldatze-prozesu esanguratsuan?***

### 3. Printzipioak



**BER-/BIR-praktikatu**

Birsortzeko erabilera eta ziklo berrietan pentsatu. Baliabide eta zerbitzu berriztagarriak erabili. Daukaguna eta inguruneak eskaintzen diguna aprobeztatu. Kanpo-efektu negatiboen sorrera minimizatu. Murriztu, berrerabili, birziklatu, konpondu, birpentsatu, birbaloratu, berriz hezi, berregituratu, birbanatu...

***Zeintzuk dira zuen proiektuan aplikatu beharreko BER-/BIR-nagusiak? Nola planteatzen duzue huraosatzen duten elementuen jarraipena edo bigarren bizitza? Zertan ari zarete baliabideak alferrik galtzen?***

**Zer pentsatuko dute zirkulartasunaz barraskiloek, marmokek edo likenek?**

## 4. Baliabideak



PARTEKATZEA MAITATZEA DA

**biribilekin** antolaketaren kultura eta kultura proiektual ekologikoagoa eta biozentrikoagoa barreiatzen eta jokoan jartzen lagunduko duten baliabideak diseinatu eta txertatu nahi ditugu.

Hurrengo orrialdeetan, tresna praktikoen biltegi ireki baten ernamuina baino ez den zerbait partekatzen dugu, lagungarri izango dena: printzipio permakulturalak eraginkorrak izateko, modu propositiboan hausnartzeko eta konpromiso txikiak hartzen joateko, portaera-aldaketak performatzeko...

**Webgunean baliabide berriak gehitzen joango gara!**


#### 4. Baliabideak

## PERMAKULTURA BEGIRATU BATEAN

Permakulturaren hiru etikak eta hamabi printzipioak elkarrekin lotuta eta elkarren mende aurkezten dituen eskema. Eskema horretaz gain, webgunean irudiak eta gif animatuak partekatu ditugu ikono guztiekin.



<https://biribili.colaborabora.org/wp-content/uploads/downloads/Permakulturaren-eskema-12-printzipio+Dadoa.pdf>




#### 4. Baliabideak

## JOLAS DEZAGUN!!!

Hamabi printzipioak logika lineal jakin bati jarraiki ordenatu ditugu. Bakoitzari gehien interpelatzen dion printzipiotik ere has daiteke. Edo zoriak esku har dezan utzi. Inprimatu, moztu eta itsatsi zure dado permakulturala!



<https://biribili.colaborabora.org/wp-content/uploads/downloads/Permakulturaren-eskema-12-printzipio+Dadoa.pdf>




#### 4. Baliabideak

## JAKINTZAK KONPOSTATU

Kultura- eta portaera-aldaketa baterako gonbidapena, ikaskuntza-eta eraldaketa-prozesu zikliko eta partekatuen emaitza, jakintza anitzen eta adimen kolektiboen hartziduraren bidez.



<https://biribili.colaborabora.org/wp-content/uploads/downloads/Jakintzak-konpostatzeko-eskema.pdf>



## 5. Nortzuk



## COLABORA BORA

**biribili** ColaBoraBorak garatutako tresna da, pertsonetan eta bizi diren ingurunean oinarritutako elkarlaneko egoerak diseinatzera eta erraztera bideratutako diziplinaz gaindiko azterlana. Gogoeta estrategikorako, plangintzarako eta antolaketarako era guztietako sistema, zerbitzu eta prozesuen diseinuan eta garapenean permakulturaren aplikazioan dugun esperientziatik edaten du.

WIKITOKI



euskampus



Tresna hau sortzeko honako hauen laguntza izan dugu: Andrea Nieto diseinatzailea kontzeptualizaziorako; UPV-EHUko Inguru Psiko ikerketataldea jokabide-arloa gehituz; ojobuey-ko Nerea Márquez diseinatzaile grafikoa unibertso bisualerako; eta Ms Barrons bizitza digitala emateko.

Eta hori posible izan da Wikitoki-ren parte izateak dakarren substratu sortzaileari eta Eusko Jaurlaritzako KSI+ programen, KSIgune / Euskampuseko Conexiones eta Bizkaiko Foru Aldundiko Bizkaia Creativaren laguntza materialari.

**Printzipio  
horiek  
hasiera bat  
baino ez dira.**

**Galdera hauek  
bidearen zati  
bat baino ez  
dira.**

**Zure bidea,  
zuen bidea,  
gure bidea  
zirkularatasunerantz.**

**EKOA DENA IREKIA DA**

**biribili** tresna prokomunala da, hacker etikaren, librea eta irekia denaren logiketan oinarritzen dena. Beraz, eduki osoa eskuragarri dago creative comos cc by sa (Aitortu eta Partekatuberdin) lizentziapean, eta eduki hori partekatzero, erabiltzero eta egokitzero animatzen dugu, bakoitzak behar duen moduan.



**Paseatzero atero, deribaturo, induskatur, espiralean biratur.**


















[biribili.colaborabora.org](http://biribili.colaborabora.org)